



Lana / La obra

Parisen bizi diren eta idazle izan nahi duten kazetari amerikar batzuen ibilerak eta festarako gogoia kontatzen ditu Jake Barnesek, liburuko narratzaileak. Horrela esanda, obrak ez dakar muntako ezer berezirik, ez bada oso obra atipikoa dela: badu trama estilizatu bat, hari nagusietakoa, zeina den Brett Ashley erizainak kuadrillan eragiten dituen erreakzio sentimentalaren kontakizuna; baina liburuak asko du erreportajetik ere (sanferminak protagonismo handia du); bada, gainera, oroitzapen-liburua; eta bada, halaber, bidaia-liburua ere. Obra hibrido bat dela esan liteke *avant la lettre*, askotarikoa, baina osagai horiek guztiak biltzen dituen zakuak izen doitu bat du, eta da nobela.

Ez, *Fiestan* kontatzen dena ez litzateke bereziki interesgarri, ez balitz bertan gertatzen diren peripezia egunerokoak kontatzeko moduarengatik. *Kixoteari* gertatzen zaio. Edo *Denbora galduaren bilari*.

Anjel Lertxundi

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Fiesta: Eguzkia jaikitzen da**
Egilea / Autor: **Ernest Hemingway**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 179
ISBN / EAN: 978-84-9109-578-1
Salneurria / Precio: 17 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 336
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 19,5 cm
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



Egilea / El autor

Ernest Hemingway Estatu Batuetan jaio eta hil zen (1899–1961). Kazetaria izan zen, eta nobelak eta kontakizun laburrak kaleratu zituen. Idazkera-estilo soila landu zuen, inolako oparotasunik gabea –*iceberg-teoria* izen-datu zuen berak, gauza asko baitago barruan, agerian gutxi egonda ere–, eta eragin handia izan zuen XX. mendeko narratibagintzan. Lau aldiz ezkondu zen, eta abenturez beteriko bizimodua izan zuen: Lehen Mundu Gerran parte hartu zuen, boluntario gisa, anbulantziak gidatzen; Espainiako Gerra Zibilean egon zen (Ebroko batailan, besteak beste), eta Bigarren Mundu Gerran (Normandian, Parisen...), kazetari modura. Domina bat baino gehiago jaso zuen bere jokamolde kementsuagatik. Kuban bizi izan zen. Afrikan hiltzeko zorian egon zen hegazkin-istripu baten ondoren. 1954an, Literatura Nobel saria eman zioten, eta haren zenbait liburu amerikar klasikotzat hartzen dira: *Fiesta* hauxe bera, *For Whom the Bell Tolls* (1940, Espainiko gerran oinarritua), *Agurea eta itsasoa* (1952).

Itzultzailea / Traductora

Koro Navarro (Donostia, 1955), ibilbide luzea du literatura-itzulpenean. Ingelesetik itzuli du gehienbat. Azkenaldi honetan egin dituen itzulpenen artean daude R.L. Stevensonren *Jekyll doktorea eta Hyde jauna* eta Asun Garikanoren *Noticias de California* (euskaratik gaztelaniara). Zenbait liburu itzuli ditu Literatura Unibertsalaren bilduma honetarako; azkena, Norman Manearen *Hulinganaren itzulera*.